

H LH6

2016/2017



Zuzenketarako Koadernoia

Izen-deiturak

Ikastetxea

Taldea

Herria

Data

Irakurmena

LHko 6. maila

Jarraibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzungo diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A. Bartzelonak bezainbat.
- B. 200.000, gutxi gorabehera.
- C. Milioi bat.
- D. Zenbait milioi.

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A. Bartzelonak bezainbat.
- B. 200.000, gutxi gorabehera.
- C. Milioi bat.
- D. Zenbait milioi.

Beste galdera batzuetan, aldiz, eskatuko dizute (E) egia edo (G) gezurra erantzutea edo erantzuna idaztea puntuak dituen gunean:

Zein da Iruñeko tokirik ezagunena?

.....



Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

ENPERADOREAREN HIRU GALDERAK

Behin batean enperadore batek bere buruari esan zion norbaitek hiru galdera hauek erantzuten jakinez gero ez zuela sekula hutsik egingen. Honako hauek dira:

*Zein da gauzak egiteko unerik onena?
Zein dira pertsonarik garrantzitsuenak?
Zer da garrantzitsuena?*

Enperadoreak sari handia eskaini zuen; hiru galdera horiek erantzuten zituenak lortuko zuen saria. Erantzunak zernahi izan ziren, baina enperadorea ez zen bakar batekin ere gustura gelditu; ez zuen saririk eman.

Hausnarrean zenbait gau eman ondoren, enperadoreak deliberatu zuen mendian bizi zen ermitau agure bati bisita egitea, hura omen baitzen gizonik argiena. Enperadorea agurearengana hurbildu zen eta hiru galdera horiek egin zizkion. Ermitaua baratzean ari zen, aitzurrean. Enperadoreak esandakoa adi entzun bazuen ere, ez zuen deus ere esan eta lanean segitu zuen.

Enperadoreak agureari begiratu zion eta konturatu zen oso nekatuta zegoela.

—Emadazu aitzurra eta zuk atsedean hartu bitartean nik aitzurtuko dut alorra —esan zuen.

Halaxe gertatu zen: ermitauak atsedean hartu zuen eta enperadoreak lan egin zuen. Ordu batzuen buruan, enperadorea asko nekatu zen. Aitzurra lurrean utzi zuen eta esan:

—Nire hiru galderei erantzuteko gai ote zinen jakitera etorri nintzen, baina ezin badidazu erantzun bat ere eman, esadazu eta nire jauregira itzuliko naiz.

— Entzun duzu norbait lasterka? —galdetu zion bat-batean ermitauak enperadoreari, sasi artean hatzarekin norbait seinalatzen zuen bitartean. Halaxe zen. Sasi artetik gizon bat atera zen lasterka, eroaren pare, urdailean odolean zuen zauria eskuekin estaliz. Enperadorea eta ermitaua hurbildu zitzaizkionean, zorabiatu zen. Atorra ireki zioten eta ikusi zuten gizonak labankada handia zuela. Enperadoreak zauria garbitu eta atorrarekin zauria lotu zion.

Biharamunean, enperadorea iratzarri zenean, zauritua parez pare aurkitu zuen, begirada berari iltzatua.

—Mesedez, barka iezadazu.

—Baina, zer egin duzu nik zuri barkatu behar izateko? —galdetu zion enperadoreak.

—Ez nauzu ezagutzen, Maiestate. Zure arerio gupidagabea nintzen eta mendeku hartuko nuela zin egina nuen, azken gerran gure anaia hil baitzenuen eta nire ondasunak bahitu baitzenituen.

Gizonak solasean segitu zuen eta, sasi artean gordea zegoela, azaldu zuen enperadorea menditik noiz jaitsiko zain gelditu zela, hari eraso egiteko. Alabaina, enperadorearen zain zegoen guardietako batek etsaia zela ezagutu eta zauritu zuen.

—Ihes egitea lortu nuen, baina zuk aurkitu eta lagundu izan ez bazenit, seguruenik hilda egonen nintzatekeen. Hara! Nik zu hil nahi eta zuk niri bizia salbatu. Lotsatuta eta eskertuta nago, aldi berean.

Enperadorea gizon haren istorioa ezagutzeaz poztu zen eta ondasunak itzuli zizkion. Gizon hark alde egin zuenean, enperadoreak ermitauari begiratu eta esan zion:

—Orain abiatu behar dut, nire galderen erantzuna aurkitu behar baitut inondik inora ere.

Ermitaua barrez hasi zen eta hala erantzun zion:

—Zure galderak jadanik erantzunda daude, maiestate.

—Nola, bada? —erantzun zuen enperadoreak, harrituta.

—Atzo, zure Maiestateak ez balit aitzurrean lagundu, gizon horrek eraso egingen zizukeen, etxera itzultzean. Orduan damutuko zenuen nirekin ez gelditu izana. Beraz, denbora-tarterik garrantzitsuena nire lorategian aitzurrean egiten emandako denbora izan zen, pertsonarik garrantzitsuena ni neu nintzen eta ahalegin garrantzitsuena niri laguntzea izan zen.

Geroago, zauritua lasterka hona etorri zenean, unerik egokiena haren zauria sendatzen eman zenuen denbora izan zen, zuk zaindu izan ez bazenu hilda egonen baitzen eta harekin adiskidetzeko aukera galduko baitzenuen. Hala, bera izan zen pertsonarik garrantzitsuena eta helbururik garrantzitsuena, berriz, haren zauria sendatzea.

Gogoan izan une garrantzitsua bakarra dela eta une hori orain dela. Une hau, oraingoa, da menderatzen dugun bakarra. Pertsonarik garrantzitsuena beti zure ondoan dagoena da, zure aurrean dagoena, zinez ez baitakizu etorkizunean beste inorekin trataturik izanen duzun. Asmorik garrantzitsuena da zure ondoan dagoen pertsona hori zoriontsua izatea, horixe baita bizitzaren asmo bakarra. Zer izan daiteke gauza xumeagoa edo garrantzitsuagoa?

Lev Tolstoi, *Ipuinik onenak*. (Egokitua)

1. Enperadoreak egindako galderen artean, zer hiru ideia nagusi ageri dira?

- A. Unea, pertsonak eta bizitzaren une bakoitzeko ekintzarik egokienak.
- B. Denbora, tokia eta bizitzeko pertsonarik egokienak.
- C. Pertsona, eta gauzak egiteko unerik desegokiena eta unerik egokiena.
- D. Denbora, pertsonarik interesgarriena eta bizitzan egin dezakezun gauzarik garrantzitsuena.

2. Zer nahi du enperadoreak hiru galdera horiek egitean?

- A. Bere inperioan barna bidaiatzea.
- B. Zoriontasunik handiena aurkitzea.
- C. Bere inperioko pertsonarik abilena izatea.
- D. **Gai guztiak asmatzea.**



3. Mendekoez eman dizkioten erantzun guztien aurrean, zergatik ez du enperadoreak inolako saririk eman?

.....
.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
0	Erantzun oker edo osatugabea da.
1	Erantzun zuzena: honako hauetako bat... - <i>Enperadorea ez zelako erantzun bakar batekin ere gustura gelditu.</i> - <i>Erantzun bakar bat ere ez zitzaiolako betegarria iruditu.</i> [Enperadorearen <u>sentimendua</u> aipatu behar da]

4. Enperadoreak nola jakin zuen zein ziren erantzun zuzenak?

- A. Zenbait astez hausnarketa eginez.
- B. Muino batera igoz aspaldiko adiskide bati bisita egiteko.
- C. **Ermittauaren hausnarketak entzunez.**
- D. Jauregira itzuliz.

5. Zer harreman dago zauritutako gizonaren eta enperadorearen artean, elkar ezagutu aurretik?

- A. **Etsaiak dira.**
- B. Adiskideak dira.
- C. Elkarri mendeku egin nahi diote.
- D. Harreman ona dute.

6. Zein da zauritutako gizonaren jatorrizko plana?

- A. Enperadoreari eraso egitea mendi gainean.
- B. Enperadoreari eraso egin eta hiltzea.
- C. Enperadoreari bere ondasunak erreklamatzeko.
- D. Enperadorea zauritzea bere anaia gogoan.



7. Testua irakurri ondoren, zure ustez, nolakoa zen enperadorea?

- A. Iraunkorra, bihotz onekoa eta gogotsua.
- B. Ulerkorra, zikoitza eta tematia.
- C. Burugogorra, txoriburua eta eskuzabala.
- D. Mendekatzailea, setatia eta borrokalaria.

8. Zer esan nahi digu Lev Tolstoik?


- A. Orainaldia bizi behar da, etorkizuneko planak eginez.
- B. Egungo unea baloratu behar da eta zure lagunei lagundu behar diezu.
- C. Orainaldia bizi behar da eta zure ondoan dagoenari lagundu behar diozu.
- D. Orainaldia baloratu behar da eta nork bere zorientasuna bilatu behar du.

9. Testuaren egilearen arabera, nolakoak izan behar dugu?

- A. Interesatuak.
- B. Zuhurrak.
- C. Buruarinak.
- D. Eskuzabalak.

TITANIC II.a 2018an ITSASORATUKO DA

Colpisa. Madril



Titanic II.aren barneko irudia, *Titanicen* kopia zehatza (fierasdelaingenieria.com)

Titanic II.ean bidaiatzea posible izanen da 2018tik aurrera. Gurutzontzi ospetsuaren naufragioaren hondakinak ez dira hondotik aterako. Ez horixe! Beste gurutzontzi bat egiten ari dira, dekoratu bereberekin, baina segurtasun arloko teknologia berrienarekin. Blue Star Line konpainia, transatlantikoaren jabea, itsasontzi haren kopia zehatza bukatzen ari da. Ontzi-entresakoaren asmoa da *Titanic II*.ak lehen ibilbidea Jiangsu-tik (Txina) Dubaira egitea.

Jatorrizko *Titanicen* neurriak hauek ziren: luzera, 269,06 metro; zabalera, 28,19 metro; eta gehienezko altuera, 53,3 metro. Bidaiariek bederatzi bizkar edo kubiartan bidaiatzen zuten, ordaintzen zuten txartelaren arabera bereizita; bizkarrik merkeenak behean zeuden, motorretatik hurbil. Itsasontzian 2.787 bidaiari joan zitezkeen. Itsasontzi berria gaur egungo gurutzontziak baino askoz ere txikiagoa izanen da –gaur egungoak, luzera, 300 metrotik gorakoak dira; zabalera, 40 metrotik gorakoak, eta hamabi bizkar baino gehiago dituzte, 3.000 bidaiaritik gora hartzeko modukoak, gainera–.

Itsasontzia egiteko jatorrizko itsasontziaren planoak eta zuri-beltzeko argazki zaharrak erabiltzen ari dira. *Titanic* berriaren irudietan, ordenagailuarekin diseinatutakoetan, luxuzko saloietara sartzeko erabiltzen ziren zur landuko eskalinata handiak erakusten dira. Erretzaileendako gelaren giro eskusiboa erakusten dute. Era berean, garai hartako modernismoa gogora ekartzen digun kafetegi paristarra erakusten digute.

Ganberetan ere XX. mende hasierako altzariak erakutsiko dira. Segur aski *Titanic II*.ean marketeria fina paratuko dute turista klaseko kamaroteetan.


Aginte-zubian ez zaio kontzesiorik eginen historiari. Lehen lerroko leihateen aurrean lema zaharra paratzeko tokia utziko da, beharbada. Haren atzean panel konputerizatua dago, itsasontzia gidatzeko radarrekin, sonarrekin eta telekomunikazio ekipoekin.

Titanic 1912ko apirilaren 14tik 15erako gauean hondoratu zen, iceberg baten kontra jo ondoren. Istripuan 1.500 lagun hil ziren. Orain, aukeratutako lehen ibilbidean, itsasontziak izanen lukeen arriskurik handiena tifo bat edo tsunami bat izanen litzateke eta gurutzontzi modernoaren segurtasun-baliabide teknikoekin, bidaiari guztien bizia salbatuko litzateke.

Diario de Navarra, 2016ko otsailaren 12a. (Egokitua).

10. Zer egin nahi du Blue Star Line konpainiak?

- A. *Titanicen* hondakinak azaleratu.
- B. Lehen aldiz *Titanic II.ean* nabigatu.
- C. *Titanicen* Dubairaino bidaiatu.
- D. *Titanic II.ean* nabigatu, norabide finkorik gabe.



11. Zein dira jatorrizko itsasontziaren eta itsasontzi berriaren arteko aldeak?

- A. Itsasontzi berria handiagoa da.
- B. Itsasontzi berriaren apaindura desberdina da.
- C. Itsasontzi berriaren segurtasuna handiagoa da.
- D. Itsasontzi berriaren diseinuak ez du zerikusirik jatorrizkoarekin.

12. Zein paragrafotan dago galdera hauen erantzuna? Kasu bakoitzean, eman erantzun zuzena paragrafoaren zenbakia (1etik 6ra) behar den laukian jarritz.

- 2** Bidaiariek ez zuten bizkar edo kubiarta berean bidaiatzen. Zerk eragozten zien?
- 6** Zer ezbehar gertatu zen hondamendiaren gauean?
- 1** Zein herrialdeetatik aterako da *Titanic II.a*?
- 3** Zer erabili da *Titanic* berriaren barneko irudiak diseinatzeko?

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
0	Erantzun oker edo osatugabea da.
1	Laurak (4) osorik osatzen badira.

13. *Titanicen* kopia eraikitzen bukatu da?

- A. Ez, ez dituztelako oraindik beharrezko baimenak.
- B. Ez, oraindik eraikitzen ari direlako.
- C. Ez, oraindik ez direlako sortzen hasi.
- D. Ez, lehen bidaia ustez 2018an egingen delako.

14. *Titanic II.a* gaur egungo gurutzontziak baino itsasontzi txikiagoa izanen da?

- A. Bai, gaur egungo gurutzontzien luzerarik hartzen ez duelako.
- B. Bai, hamabi bizkar edo kubiarta izanen dituelako.
- C. Ez, *Titanic* inoiz eraiki den itsasontzirik handiena izan delako.
- D. Ez, bidaiari-kopuru bera garraiatuko duelako.

15. Nondik lortu dituzte *Titanic II.a* eraikitzeako datuak?

.....
.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
0	Erantzun oker edo osatugabea da.
1	Erantzun zuzena: <i>Jatorrizko itsasontziko <u>planoetatik</u> eta zuri-beltzeko <u>argazki</u> zaharretatik.</i> [Biak aipatu behar dira]

16. *Titanicen* eta *Titanic II.*aren artean, zer alde izanen da erabat desberdina?

- A. Kafetegi paristarra.
- B. Luxuzko saloiak.
- C. Erretzaileendako gelak.
- D. Aginte-zubia.

17. Ibilbide bat aukeratu da. Zerk hondora lezake *Titanic II.a*?

.....
.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
0	Erantzun oker edo osatugabea da.
1	Erantzun zuzena: <i>Tifoi batek edo tsunami batek.</i> [Bi fenomeno meteorologikoak erantzun behar dituzte]

18. *Titanic II.*ari ezbeharren bat gertatuko balitz, nor salbatuko litzateke?

.....
.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
0	Erantzun oker edo osatugabea da.
1	Erantzun zuzena: <i>Bidaiari guztiak.</i>

Magia Freskagarriekin

BEHAR DITUZU

- Gasdun edari freskagarri bat (Coca Cola, adibidez).
- Tresna puntadun bat (orratz potolo bat, adibidez).
- Errotuladore beltz bat.



ZER EGIN



Lehenengo, orratz potolo batez egin zulo bat lataren albo batean, goiko aldean.

Ondoren, lata ireki gabe, hasi husten zulo txotik edaria ateraz, baina zeharo hustu gabe! Noiz arte, bada? Pixka bat uzkuratzen den arte. Izan ere, husten joan ahala, lata uzkuratzen joango da, eta itxura traketsa hartuko du (begiratu irudia).

Gero margotu tapa beltzez zabalik dagoela sinestarazteko. Itxura hori behar duzu ikusleei pentsarazteko lata kalean, lurrean, aurkitu duzula.

Eta horixe kontatu lagunei: "Jaun-andreok, lata hauxe aurkitu dut gaur goizean, eskolarako bidean. Baina orain egarri naiz; beraz, edan egingo dut." Disimuluan, estali zulo txoa hatz batez, eta eragin indarrez latari. Berehala hartuko du jatorrizko forma. Lasai-lasai tapa ireki, eta ikusleen aurrean edan.

ZER GERTATU DA

Edari freskagarri horrek gas (CO_2) asko du, eta, horrelako edariak astintzen ditugunean, gasak likidotik askatzera eta zabaltzera jotzen du (horregatik ateratzen dute zarata latek irekitzean). Baina zulo txoa ixten badiogu, gasak ezin du urrutira ihes egin, eta, beraz, latak ematen duena bakarrik zabaltzen da. Gasa hedatzean ahalik eta bolumen handiena hartuko du, eta indar horrek eragingo du lata jatorrizko itxurara itzultzea.

<http://www.zernola.net/>

19. Zein testu mota da irakurri berri duzun testua?

- A. Narrazio testua.
- B. Argudio testua.
- C. Instrukzio testua.
- D. Azalpen testua.

20. Zer behar duzu magia truku hau egiteko?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Hirurak erantzun behar dira: - Gasdun edari freskagarri bat. - Tresna puntadun bat (orratz potolo bat, adibidez). - Errotuladore beltz bat.

21. Egin daiteke truku hau laranja zukua duen brik batekin? Arrazoitu.

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Erantzuna eman eta arrazoitu behar da: Ez, ezin daiteke, gasdun freskagarria izan behar duelako.

22. Zergatik margotu behar da tapa beltzez?

- A. Kanean aurkitu dugulako lata.
- B. Lata hutsik dagoela sinestarazteko.
- C. Lata pixka bat apaintzeko.
- D. Lata itxita dagoela erakusteko.

23. Zergatik itzultzen da lata jatorrizko formara astindu ondoren? Azaldu.

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Bi erantzunetako bat edo biak: - Gasak likidotik askatzean zabaltzera jotzen duelako. - Gasa hedatzean ahalik eta bolumen handiena hartzen duelako.